

# Michele Alliot-Marie auzapezari gomendioa

• PIARRES XARRITTON •

[EUSKALTZAINA]

**E**uskal Tebistari esker, Baionatik entzun zaitut Madriletik, frantsesez mintzo, frantsesen, espainolen ala euskaldunen ez dakit norentzat, zure politika ikuspegiak eta bereziki euskal departamenduak.

Politikariak egin ohi ez duten bezala, argi hitzegin duzu eta goizeko kazetan zure bozeramaile Brisson jaunak berretsi duenez, terrorismoa eta departamentua elkar loturik direlako zarete eta zure alderdia beti agertu euskal departamenduaren aurka.

Banekien Frantziako Unibertsitatearen zaindari izana zarela, beste gure departamenduaren etsai minaren, Bayrou jaunaren, aitzinetik, baina ez nuen uste hain ongi ezagutzen zenuela historia. Ezen egia da terrorismoarekin lotua izan dela, haste hastetik, gure departamenduaren historia.

Nork zuen alabaina, lehen aldikotz, duela berrehun bat urte, proposatu eta defendatu departamendu hori? Zu baino lehen orduan Lapurdiko deputatu ministro eta akademiari zen Garat ospetsuak eta haren anaiak, Uztaritzeko auzapezak, ezpada?

Nork zuen aldiz ukatu eta debekatu euskal departamendua? *Terrore*, hitza eta *terrorismo* mota xuri ala gorri guztiak asmatu, praktikatu eta munduan barna hedatu zituen zure Frantziako legebiltzarren gehiengo fanatikoak.

Departamenduaren aldeko Garat horrek berak geroxeago proposatu ziola Napoleonek enperadoreari zazpi euskal herriak bateratuko zituen Fenizia Berria izeneko estadia Frantziaren eta Espainiaren mugartean eraikitzea, jakina da, nahiz ez diren xehetasun horiek Frantziako eskolen programetan sartzea.

Beste lanik ere izan zuela orduan Napoleonek badakigu, ordea, eta zazpi euskal herrien batasunik ikusi gabe joan ziren beste mundurat Napoleon eta haren adiskide eta etsaiak.

Anitz urte iragan dira geroztik, baina zu entzun eta, banago, Anderea, terroristen mehatxuek baino ez ote zaituzten, zu eta zure Madrileko adiskide berriak, Fenizia Berriaren aspaldiko ametsak gehiago kezkatzen.

Oroitzen naiz, ez euskal terrorismoak ez euskal departamendurik aipatzen ez zelarik, eta Franco diktadorea bizi zelarik, zure aita Bernard Marie Miarretzeko auzapez eta deputatu jaunak gonbidatu ninduela Angelu eta Baionako muga zeukan etxe xoko politeria, nirekin bi solas egin nahi omen zitu elako.

Zertaz zuen orduan arrangura, hone-latsu adierazi zidan berehala zure aitak: «Badakizu, jauna, Baionako lizeoan egin nituela bigarren mailako eskolak, eta nik bezala ene Baionako lagun anitzek. Gero joan gara bakoitza gure alde, baina, nehoiz ez dugu arranguratzeko arrazoirik izan, ez nik ez ene lagunek, gaztetan ukan dugun zorteaz; (egun hauetan hainbeste aipatzen den Michel Camdessus Baionako bankaria ote zuen gogoan ez dakit) guztiak aurkitu dugu gizartean ohorezko leku egokia. Erradazu beraz otoi: zertaz zarete kezu, zuek euskaldunak?»

Eta hona zer iharde-tsi nion zure aitari orduan: «Egia da, jauna, nik ere, ene sailean, maila oneko eskolak egiteko zortea izan dudala, Erromako elizari esker, eta gaurregun badiudala eskolako lagunak goiko mailetan jarriak direnak, batzuek jada kardinalen xapela gorria buruan daramate, haie-tarik bat, bihar edo etzi, Aita Saindu izan daiteke. Barka jauna, baina hori gerta baledi ere, ez dut horretaz axolarik, horretaz *futitzen* naiz. Zertaz dudak egiaz axola, zerk didan egiten zinez min, erranen dizut: ene herriak nau kezkatzen, ene herria hilen ala biziko den, horretaz dut axola.

«Zuk, jauna, ez dakizu hori zer den, herri-mina zer den, baina ikusi dukezu menturaz norbait hiltzen eta ohartu zara, nola hiltzera doana, hil aitzin, mihisei atzaparka loturik, gudukatzen den, agonia deitu ohi den, azken gudukaldian.

Jakin ezazu beraz, nik erranik, herri zahar hau ez dela hilen, hil behar badu ere, gudukarik eta zalapartarik gabe!»

Geroztik ez dakit zertan dabilen zure aita, zer ondorio atera duen bere Miarritzeko esperientziatik, baina zu, Anderea, iruditzen zait, zure eletarrik, aitaren bide beretan zabilzala, beskoiztarrek dioten bezala, berdin *hilkaturik*: Kezkatzen zaituzte bereziki departamenduaren aldeko zure alderdikide errebelatuek eta, orohar, gero-ta

gehiago elkarretaraten ari diren bi euskal herrietako euskaldun gaztek.

Adineko euskaldun baten kontseilua nahi baduzu onartu, jakin ezazu, Anderea, ez zaituela harritu behar euskaldunen batasun eta askatasun nahiak.

Haurrak ginelarik, amaren altzoan ikasten genuen Ameriketatik jin Mendia-gue hazpandar bertsulariaren duela ehun urteko oihua: Zazpi euskal herrietako haurride guziek elkar atxik dezagun, munduko herri guztiak bakoitza beren lurren nagusi jartzen ari den bezala, etorriko da ere gure aldial!

Etxeko eskolatik landa, zure kideko Ybarne-garag eta gerlari ohien katixima genuen ikasten Frantziaren eta Elizaren eskoletan: *La petite patrie dans la Grande Patrie*, gure herri ttipia, Herri handiaren barnean zerbitzatzeko eta gozatzeko gisan.

Baina halako gerla arraro baten ondorioz, gure Herri Handi hura

leher zorian ikusi genuen eta gero, burua ezin altxatuz, gura Herri Handiak ez zuen kalipurik izan haren alde odola ixuri zuten bere seme juduen zaintzeko ere: berak zituen bildu eta igorri Alemaniako labe gorrietan erretzera?

Eta geroztik nola ditu gure Errepublikak ordaindu bere zerbitzari ohi marokiar, senegaldar edo harkiak? Eta Algeriako gerla itsusian gorputzeko eta ari-mako osasuna galdu duten euskaldunak edo kaskoinak?

Mendiagiek iragarria gertatzen ari delarik eta munduko herri xumeenek beren burua altxatzen, hona non Pariseko legelari handiek jakinarazi diguten behin, ez dabilela Frantziaren hizkuntzarik, frantsesa baizik. Gero berriz, ez dela Frantziaren frantses populua baizik izaten ahal, ez korsikar populurik ez besterik. Orain beraz zuk diozu, Anderea, euskal departamendurik ere ez dela izaten ahal, Frantzia Frantzia deno. Baina nork sinets? Ez ote da hori Dunkerquetik Tamanrassetera beti irau behar zuen gezurrezko Frantzia hura?

Utz atzu otoi, Anderea, Pariseko legelari itsuen solas eñulak bazterrera eta erabaki ezazu behingotz, Frantziako seme alaba guztiak izanen dutela, Erresuma aurreratuko guzietako herriarrek bezala «eskubideak izateko eskubidea»: erlazio edo hizkuntza edo kultura berezia dutenek berezitasun horretan irauteko eskubidea izan dezatela!

Hori da Frantziak orain arte ikasi ez duen zuzenlezea, gaur Estatu Batuetan bezala bihar Europako Federazioan aplikatuko dena.

Hori bera bakebidea. Eta ez banauzu sinesten, zoaz galdatzera Blair jaunari zergatik eskaini dion autonomia Eskoziari eta Gales herriari. Gero zuri dagokizu bake bidea erakustea Aznarri; ez hark zuri.

Hala bedi!

“  
Orain diozu euskal departamendurik ez dela izaten ahal. Ez ote hori Dunkerquetik Tamanrassetera irau behar zuen gezurrezko Frantzia hura?”

“  
Garat-ek proposatu zion Napoleoni zazpi euskal herriak bateratuko zituen Fenizia Berria estadia Frantziaren eta Espainiaren mugartean eraikitzea



XABIER ALDAY

## Mendekuz

**L**arunbatean urduri esnatu nintzen. Goiz erdirako, bizpahiru irratitako albistegiak entzun eta egunkariaren titularrak erreparatuak nituen — futbol txapelketari buruzko eranskina baztertuta—, baina gehiago behar nuen, zer-bait hautsi, urrats bat aurrera eman, mugak iragan. Lagun batzuekin geratuta nengoan, eta bildu gintuen arrazoiz baliatuz saiatu nintzen barrenak husten, eta ia bi ordu eman genituen berbetan, baina amaitu genuenean, artean zer-bait falta nuen. Dei batzuk egin nituen, lagun bati horrela prometatuta. Egindako hiru deietan ez zuen inork hariaren bestaldean telefonoa eskegi, eta ezereza izanik ere nire harrotasun puntua dudalako muzin egin nion telefono-konpainiako ahots edulkoratuak agindutakoan mezua uzteari.

Ohartu bazarete, gure herrietako kasko zaharretako karrikek badute abantaila berezi bat: zuzen-zuzen aurrera joateaz gain aukera gutxi uzten dizute. Horrela, nire grinak non ase pentsatu ezinik etxera bidean nindoala, liburu-denda baten aurrean geratu nintzen. Liburu-denda txikia zen, zerkusirik ez erakuslehoetako zentimetro karratu bakoitza salgai duten mega-denda eta mintzoaren inguruan jaiota mintzatzaileez ahaztutako negozioekin. Transgresio gozoa iruditu zitzaidan bertan sartu eta ia orpo orpo dendariekin batera izenburu eta portaden artean zulumiratu ondoren ezer erostea, eta ezin nion eutsi barruan neraman amorrazioari.

Irakurzaletasunaren aurka hain gozo lan egin duten maisu guztiak nituen ahotan.

Gaur bertan hasita literaturarik gabeko selektibitateari aurre egingo dioten ikasleen izenean hartu nuen mendeku pentsamenduaren alienazioaren aurka.